

OHARRA: BEZEROA BAZARA, KONTRATUAK ALDA EZIN DITZAKEEN LEGE-ESKUBIDE BATZUK IZAN DITZAKEZU. LIZENTZIA HONETAKO EZEIN XEDAPENEK EZ DU LEGE-ESKUBIDE HORIEK ALDATZEKO INDARRIK, INDARREAN DAUDEN LEGEOK HALA DEBEKATUZ GERO. LEGEAK LIZENTZIA-BALDINTZA HAUEK BESTE HIZKUNTZA BATERA ITZULTZEA BEHARTZEN BADU, INGELESEZKO LIZENTZIA-BALDINTZAK IZANGO DIRA KONTUAN HARTUKO DIRENAK, INGELESEZKO BERTSIOAREN ETA BESTE HIZKUNTZA BATEKOAREN ARTEAN ALDEAK SORTUZ GERO. LIZENTZIA-BALDINTZA HAUEK INGELESA EZ DEN BESTE HIZKUNTZA BATEAN EMATEN BAZAIZKIZU, RIM-EK ZURETZAT EGOKIAGOA IZAN DADIN SOILIK EGIN DU.

BLACKBERRY PROSUMER ZERBITZUEN AKORDIOA

Research In Motion Limited edo haren kideetako batek ("RIM") atseginez jartzen dizkizu eskuragarri:

"BlackBerry Prosumer Zerbitzuak" RIMek diseinatutako eta eskainitako zerbitzuak dira RIM bezeroentzat. RIMen BlackBerry jabetzako software zerbitzariarekin, bezeroek funtzionalitate jakin batzuk izango dituzte, halako software zerbitzariarekin eskuratu beharrik gabe. BlackBerry Prosumer Zerbitzuen barnean daude RIMen "BlackBerry Internet Zerbitzuak". BlackBerry Internet Zerbitzuek honako hauek egitera gaitzen ditu harpidedunak: (a) banaketa automatikoa erabiltzen duten ISP jakin bat edo beste hirugarren baten posta elektronikoko kontuak Eskuko Produktura integratzea; (b) Eskuko Produkturako gailuan oinarritutako mezu elektronikoen helbidea sortzea, eta (c) Interneteko eduki eta zerbitzu jakin batzuetara sartzea. BlackBerry Internet Zerbitzuko posta elektronikoen funtzionalitatea honela ere ezagutzen da: "MyEmail", "BlackBerry Internet Mail" eta/edo Sare Zerbitzu Hornitzailearen berariazko produktuaren izen gisa. Baliteke BlackBerry Prosumer Zerbitzu guztiak edo batzuk ez eustea Zeure Konexio Zerbitzu Hornitzaileei. Egiaztatu eskuragarritasuna Zeure Konexio Zerbitzu Hornitzailearekin.

BLACKBERRY PROSUMER ZERBITZUAK "ZERBITZUAK" GISA HORNITZEN ZAIZKIZU ETA "BLACKBERRY SOLUZIO" AREN ZATI DIRA, RIMEN BAIMENDUTAKO BLACKBERRY SOFTWARE LIZENTZIA AKORDIOAN AGERTZEN DIREN BALDINTZEN ARABERA ("BBSLA"), ETA GEHIAGARRI HONEK ALDATZEN DUEN ERAN. GEHIAGARRI HONEK ETA BBSLAK, BIAK BATERA OSATZEN DUTE "AKORDIOA"; BAI BLACKBERRY PROSUMER ZERBITZUETARAKO, BAI ZERBITZU HORIETARAKO ERABILTZEN DUZUN SOFTWAREARAKO ERE. Besterik definitzen ez den artean, letra larriz idatzitako baldintza guztiek BBSLA aipatzean emandako esanahia izango dute. ZURE KONEXIO ZERBITZU HORNITZAILEAREN BLACKBERRY PROSUMER ZERBITZUEN WEBGUNEAN AURKI DITZAKEZU BAI BBSLA, BAI GEHIAGARRI HAU ERE. ZURE BLACKBERRY GAILUA ESKURATU BERRI BADUZU, BBSLAREN ORAINGO BERTSIOA DA ONARTU BEHARREKO SOFTWARE AKORDIOA, ZURE BLACKBERRY ESKUKO SOFTWAREA ERABILTZEKO. EDOZEIN ARRAZOIENGATIK BBSLAREN ORAINGO BERTSIOA BILATU EZIN BADUZU, HONAKO HELBIDE HAUETAN AURKI DITZAKEZU: WWW.BLACKBERRY.COM/LEGAL HELBIDEAN EDO RIMEKIN HARREMANETAN JARRIZ HEMEN: LEGALINFO@RIM.COM. AKORDIO HONEN BALDINTZEN GAINEAN GALDERAREN BAT EDO KEZKAREN BAT BADUZU, JARRI HARREMANETAN RIMEKIN HONAKO HELBIDE HONETAN: LEGALINFO@RIM.COM.

LIZENTZIAKO BALDINTZA HAUEK, BEHEAN AGERTZEN DEN "ONARTZEN DUT" KLIKATUTA ONARTUZ, ZU, BANAKO GISA, EDO, ZU, BEZEROAREN SOFTWAREA ZURE ENPRESAREN EDO BESTELAKO ERAKUNDEREN BATEN IZENEAN ONARTZEKO AHALMENA IZANEZ GERO, HAU DA, EUREN ONURAREN ALDE EGITEN BADUZU, (EDOZELAN ERE "ZU") BEZEROAREN SOFTWAREAREN LIZENTZIA-BALDINTZOK JARRAITZEA ADOSTEN ARI ZARA. GOGOAN IZAN, ZURE JURISDIKZIOKO LEGEEN ARABERA, ADINEZ NAGUSIA IZAN BEHAR DUZULA AKORDIO HAU SINATZEKO. ADINEZ NAGUSI EZ BAZARA, BLACKBERRY PROSUMER ZERBITZUAK LORTZEKO ZURE TUTOREAK HARTU BEHARKO DU PARTE AKORDIO HONETAN, ETA HARK BAIMENDUKO DU, "BAIMENDUTAKO ERABILTZAILE" GISA, ZUK BLACKBERRY PROSUMER ZERBITZUAK ERABILTZEA.

BLACKBERRY PROSUMER ZERBITZUAK AKTIBATZEN EDO ERALBITZEN HASI AURRETIK, AKORDIO HONEN BALDINTZAK ADOSTEKO EZ ZAUDELA PREST ERABAKI BADUZU, EZ DAUKAZU ESKUBIDERIK ZERBITZU HAUEK ERABILTZEKO, EZTA ZERBITZU HAUEKIN LOTUTAKO EDOZEIN "SOFTWARE" ERABILTZEKO ERE.

BLACKBERRY PROSUMER ZERBITZUEN BERARIAZKO BALDINTZAK

1. **"Zerbitzuen" definizioa.** Edozein zalantza baztertzeko, jarraian adierazitako BlackBerry Prosumer Zerbitzuak, BBSLaren arabera, Zure BlackBerry Soluzioaren zati diren Zerbitzuak dira.
2. **Konexio Zerbitzu Hornitzailea.** Zure Konexio Zerbitzu Hornitzaileak eutsi beharko die BlackBerry Prosumer Zerbitzuei eta Zerbitzu horietarako Zure Konexio Zerbitzu Hornitzailearekin akordio bat izan behar duzu. RIMi ez diozu BlackBerry Prosumer Zerbitzuengatik inolako ordainketarik egingo; BlackBerry Prosumer Zerbitzuengatik ordainketa guztiak Konexio Zerbitzu Hornitzaileari egingo dizkiozu. Laguntza jasotzeko, jarri harremanetan Zure Konexio Zerbitzu Hornitzailearekin; izan ere, RIMek ez baitio laguntzarik zuzenean ematen azken erabiltzaileari.
3. **Baimendu gabeko Erabilera.** Berehala jakinarazi behar diozu RIMi Zure BlackBerry Prosumer Zerbitzuen baimendu gabeko edozein erabileragatik. Honako hau ere adosten duzu: ez duzula etengo BlackBerry Prosumer Zerbitzuen funtzionamendua; ez duzula eskatuko beste azken erabiltzaile baten pasahitzik, eta ez duzula jokatu beste erabiltzaile baten BlackBerry Prosumer Zerbitzuen erabileran eragozteko moduan.
4. **BlackBerry Prosumer Zerbitzuen Erabilera Mugak/Aldaketak.** Honako hau adosten duzu: balitekeela RIMek, Zu ohartarazi gabe, mugak ezartzea eta/edo aldaketak egitea Zure BlackBerry Prosumer Zerbitzuetan, eta balitekeela BlackBerry Prosumer Zerbitzuetan aldaketak egitea ere, BlackBerry Prosumer Zerbitzuen funtzionamendua nabarmen mugatzen edo degradatzen dituzten aldaketak eginez. Egingarria denean, RIMek arrazoizko ahalegina egingo du muga eta/edo aldaketa horien berri emateko, bai BlackBerry Prosumer Zerbitzuen Webgunean, bai, BBSLAn ezarritakoaren arabera, jakinarazpen ohar baten bidez. Muga horiei atxikitzea adosten duzu, Zure BlackBerry Prosumer Zerbitzuen sarrera jarraitua dela-eta.
5. **Galdutako/Lapurtutako/Transferitutako Eskuko Produktuak.** Identifikazio zenbaki bakarria erabiltzen da Zure Eskuko Produkturako; alde batetik, zure posta elektronikoaren helbidea(k) Zure Eskuko Produktuarekin lotzeko, eta, bestetik, mezu elektronikoak eta bestelako datuak Eskuko Produktu horretara zuzentzeko. Zure Eskuko Produktua galtzen baduzu, lapurtzen badizute, edo Zure Eskuko Produktua hirugarren bati transferitzen badiozu (BBSLak eta Konexio Zerbitzu Hornitzailearekin duzun Akordioak uzten duen moduan), BlackBerry Prosumer Zerbitzuen webgunera joan behar duzu eta, berehala, bereizi behar dituzu Zure posta elektronikoko helbidea(k) Eskuko Produktu horretatik.
6. **Datuen babeskopia egiteko/ezabatze baldintzak** Indarrean dagoen legeak debekatzen ez duen bitartean, RIM ez da erantzule egiten Zure Eskuko Produktura transmititutako edonolako datuez. RIMek gomendatzen dizu, tarteka, Zure Eskuko Produktuko mezu elektronikoaren, edukien eta/edo bestelako datuen babeskopia egitea, RIMek ez baitu horrelako datuak gordetzen. Zure Eskuko Produktua transferitzen baduzu (BBSLak onartzen duen moduan), Zure Eskuko Produktuko datu guztiak ezabatu beharko dituzu, baita memoria gehigarrikoak ere, bestela, Eskuko Produktua jasotzen duen pertsonak eskuragarri izango baitutu datu horiek.
7. **Legez kanpoko erabilera edo erabilera desegokia.** BBSLAn gehiago zehazten den moduan, ez dituzu BlackBerry Prosumer Zerbitzuak edo BlackBerry Soluzioen beste edozein zati legez kanpo edo desegoki erabiliko; eta ez duzu, salbuespenik gabe, inor ordezkatzeko, phishing-ik egingo, publizitate erauntsirik sortuko, jazarpenik egingo, edo copyright arau-urratzerik. Indarrean dauden legeria eta arau guztiak onartzeko ardura daukazu BlackBerry Prosumer Zerbitzuak erabiltzen dituzenean. RIMek uste badu BlackBerry Prosumer Zerbitzuak Akordio hau urratzen duen eran erabili direla, RIMek edo haren ordezkariak bidezkoa uste duen edozein ardurazko ekintza

har dezakete, baina ez dago behartuta. Ekintza horiek izan daitezke, horretara bakarrik mugatzen ez bada ere, edukiak behin-behinean edo behin betiko kentzea, Interneteko transmisioa zati batean edo erabat blokeatzea edo BlackBerry Prosumer Zerbitzuen eta Akordioa oso-osorik edo zati batean berehala etetea edo amaitzea. RIM ez da, inolaz ere, hartutako ekintzen erantzule egiten. Goran aipatu ekintzak ez dira RIMen konponbide eskusiboak eta RIMek uste dituen bestelako legezko, bidezko edo teknika-ekintzak ere har ditzake.

8. “DAGOEN DAGOENEAN” eta “ESKURAGARRI DAGOEN MODUAN” eta ez da Egoera Kritikoetan erabiltzekoa. BlackBerry Entrepresako Softwarea ez bezala, BlackBerry Prosumer Zerbitzuak ez du datuen transmisioa enkriptatzen. BBSLAN gehiago zehazten den moduan, haririk gabeko zerbitzuek huts egin dezakete eta inoiz ez dira Egoera Kritiko helburuetarako edo aplikazioetarako erabiliko; egoera horiek huts egite kontrolak behar izaten baitituzte; eta indarrean dagoen legeriak uzten duen arte, eta BBSLAN gehiago zehazten den moduan, BlackBerry Prosumer Zerbitzuak “DAGOEN DAGOENEAN” eta “ESKURAGARRI DAGOEN MODUAN” eskaintzen dira. RIMek ezin du ziurtatu eta ez du ziurtatzen BlackBerry Prosumer Zerbitzuak jarraitua, etenik gabea, puntuala, segurua edo akatsik gabea denik. RIMek eskubidea erreserbatzen du mantentze-lanak egiteko edota BlackBerry Prosumer Zerbitzuetarako sarrera eteteko, bai softwarearen akatsak konpontzeko, bai eguneraketak instalatzeko, bai BlackBerry Prosumer Zerbitzuen diagnosia eta mantentze-lanak egiteko; prozedura horiek guztiek RIMen ahalmena mugatzen dute BlackBerry Prosumer Zerbitzuarekin hornitzeko denbora-tarte batean.

9. Hirugarrenen Guneak, Softwarea, Zerbitzuak eta Edukiak. Honako hau ulertu eta adostu duzu: BlackBerry Prosumer Zerbitzuak gaitzen zaituela hirugarren baten edukia, hirugarren baten webguneak, hirugarren baten softwarea eta hirugarren baten zerbitzuak eskuratzeko, baita BlackBerry Prosumer Zerbitzuak erabiliz hirugarren baten posta elektronikoko zerbitzuak mugarik gabe ibiltzeko ere. BBSLAN gehiago zehazten den moduan, honako hau ulertu eta adosten duzu: RIMek ez duela inongo erantzukizunik hartzen BlackBerry Prosumer Zerbitzuak erabiliz sartutako edo eskuratutako edozein hirugarren baten edukien gainean, hirugarren baten webguneen gainean, hirugarren baten softwarearen gainean edo hirugarren baten zerbitzuen gainean; eta Zeu zarela Interneten onartutako edozein kontraturen erantzule. Beti izan behar da arreta, BlackBerry Prosumer Zerbitzuak erabiltzean, hirugarrenei norberaren edo besteen informazio pertsonala ematen denean.

10. Informazio Pertsonala Biltzeko Baimena. BBSLAN bildutako informazio pertsonala biltzeari dagokion xedapenez gain, baimena ematen diozu RIMi hirugarren baten posta elektronikoko zerbitzuarekin lotutako Zure informazio pertsonala biltzeko, erabiltzeko eta gordetzeko, RIMek beharrezko deritzon denboran (betiere, indarrean dagoen legeriak onartzen duen denbora-tartearen barnean), baita, eta inolako mugarik gabe, hirugarren baten posta elektronikoko bakoitzaren zure erabiltzaile-IDA eta pasahitza izateko ere, eta hirugarren horren posta elektronikokoan zerbitzu hornitzaileei emateko, zerbitzua aktibatzeko, kobratzeko, hornitzeko, mantenimendurako eta desgaitzeko.

11. Gatazka. Gehigarri honen edozein baldintza BBSLako baldintzekin, beste gehigarri bateko baldintzekin edo BBSLAN egindako zuzenketekin bat etorriko ez balitz, baldintzok inkoherente gisa hartuko dira, betiere, BlackBerry Prosumer Zerbitzuari dagokionean.

Lizentzia-baldintzok berrikusi ditut, baita Gehigarri honetakoak eta BBSLakoak ere, eta Gehigarrian eta BBSLAN adierazitako arauetan eta baldintzetan adierazitakoaren arabera, BlackBerry Prosumer Zerbitzuetarako Akordioan sartzeko prest eta baimenduta nago.